



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena**  
**Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa**  
**Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriak 15**

**Vitoria-Gasteiz, 15 de octubre de 2019**

**Lehendakaritza**

**EUSKO JAURLARITZAK KOLONBIAKO EGIAREN BATZORDEAREKIN  
ELKARLANEAN DIHARDU ERBESTEAN DAUDEN BIKTIMA  
KOLONBIARREN TESTIGANTZAK BILTZEKO**

- **Elkarlana HEGOA institutuaren bitartez egingo da, eta Kolonbian Egia Argitzeko, Bizikidetzarako eta Ez Errepikatzeko Batzordeari, honek gatazkaren ondorioz erbesteratu behar izan zuten biktimei agindutakoa betetzeko aukera emango dio**

Eusko Jaurlaritzak Kolonbian Egia Argitzeko, Bizikidetzarako eta Ez Errepikatzeko Batzordearekin elkarlanean jardungo du. Elkarlan horri esker, gatazkaren ondorioz erbesteratu behar izan zuten eta Euskadin, Espainiako gainerako lurraldetan eta Europako beste herrialde batzuetan (Frantzia eta Belgika, batez ere) bizi diren biktimei batzorde horrek agindu ziena bete ahal izango da. Elkarlana UPV/EHUko HEGOA – Nazioarteko Lankidetzari eta Garapenari buruzko Azterlanen Institutuaren bidez gauzatuko da. Horretarako, Gobernu Kontseiluak, gaur, 152.000 euroko laguntza onartu du. Diru hori Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritzak (Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza) kudeatuko du.

Gaur egun HEGOA institutuak Batzorde kolonbiarrarekin elkarlanean dihardu erbesteratutako biktimei arreta ematen. Laguntza horri esker, Kolonbian emandako gatazkaren testuinguruan, indarkeriak, oro har, euren bizitza, segurtasuna edo askatasuna mehatxuan jartzen zituela ikusirik, herrialde horretako mugak gurutzatu zituzten pertsona guztien babesa bermatzen dute. Zehazki, lankidetzaren honen esparruan burutuko den lanean, pertsona horien erbesteratzea eragin zuten giza eskubideen urraketari eta hauen ondorioei buruzko informazioa biltzen jardungo dute.

Hala, gaur emandako laguntzak balioko du biktimen eta hauei laguntzen eta arreta psikosoziala ematen dihardutenen testigantzak hartzeaz arduratuko diren pertsonentzako prestakuntza-tailerrak abian jartzeko, baita biktima europarren 500 testigantza hartzeko eta sistematizatzeko ere.

Kolonbian Egia Argitzeko, Bizikidetzarako eta Ez Errepikatzeko Batzordea gatazka amaitzeko eta bake egonkorra eta iraunkorra eraikitzeko Azken Akordioaren esparruan sortu zen. Akordio hori Kolonbiako Gobernuak eta Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileek sinatu zuten 2017an. Aldi baterako eta judizioz kanpoko mekanismo baten moduan eratu zen, gatazka armatuaren esparruan gertatutakoaren egia ezagutzeko, gatazkan zehar egindako bortxaketak eta arau-hausteak argitzen laguntzeko, eta gizarte osoari gatazka horren konplexutasunaren azalpen zabal bat emateko. Lan hori osatzeko ere aipatu behar dira, errefuxiatuta eta/edo erbesteratutako dauden biktimengan gatazkak izan duen eragina, biktima horien eskubideen urraketak, eta pertsonekin batera gatazka armatuak mugak gurutzatu zituen.

**Lehendakaritza**

## **LANKIDETZARAKO IGNACIO ELLACURÍA SARIAREN AURTENGO DEIALDIA EGIN DA**

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio gaur garapen lankidetzarako Ignacio Ellacuria sariaren edizio berri baten deialdiari. Lehendakaritzak ematen du sari hori urtero, Euskadiko eta Euskaditik kanpoko erakundeek, kolektiboek eta pertsona indibidualek herrien arteko berdintasunaren eta justiziaren aldeko borrokan eta pobrezia ezabatzeko borrokan egindako ekarpena aitortzeko.

Saria, 15.500 eurokoa, eskuratu ahal izan dute honako atal hauetariko batean bildutako baldintzak betetzen dituzten erakundeek, ekimenek edo pertsona fisikoek:

- Euskal lankidetzarekin harremanen bat duten, eta beren komunitateen garapenaren alde ekarpen esanguratsua eta nabarmena egin duten irabazi-asmorik gabeko herrialde pobretuetako toki-erakundeak.
- Irabazi-asmorik gabeko euskal erakundeen ekimenak, ahal bada erakundeen partzuergo batek bultzatutakoak, eta Hegoaldeko herrien garapenean eta/edo justizian oinarritutako nazioarteko harremanetan ekarpen esanguratsu eta nabarmena egin dutenak. Kasu honetan, ekimena sustatu duen erakundeari edo erakundeei emango zaie saria.
- Euskal jatorriko pertsona fisikoak, pobretutako herrien garapenaren alde egindako elkartasun-lanarengatik nabarmendu direnak.
- Herrien justiziaren eta garapenaren alde ekarpen esanguratsu eta nabarmena egin duten eta horregatik euskal lankidetzarako eredu gisa hartzen diren pertsona fisikoak, nazioarteko eremukoak

Sari honekin, Garapen Lankidetzarako Euskal Agentziak-Elankidetzak — sariaren kudeaketaren arduradunak—, lankidetzaren alorrean lortutakoa eta egindako ekarpenak zabaltzen lagundu nahi du eta, horrekin, euskal gizartea sentsibilizatu nahi du.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernu

### JAURLARITZAK 200.000 EUROREKIN FINANTZATUKO DITU TOKIKO AUTONOMIA GAUZATZEKO EUDELEN JARDUERAK

- Laguntzaren xedea [Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen](#) helburuak inplementatzea eta sendotzea da.

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Asociación de Municipios Vascos – Euskadiko Udalen Elkarteari (EUDEL) [Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea](#) inplementatzeko eta sendotzeko lanen gastuak finantzatzeko dirulaguntza zuzena emateko akordioa. Horrela, Eusko Jaurlaritzak lege berriaren ahalmen guztiak garatzen eta udal-autonomia gauzatzen lagunduko die Euskadiko toki-erakundeei.

Dirulaguntza 200.000,00 eurokoa izango da, eta bi alditan ordainduko da 2019an eta 2020an. Helburua da, besteak beste, azterlanak, lan teknikoak, jardunaldiak, mintegiak, argitalpenak, eta abar finantzatzea, hala nola:

- ✓ Udaletako kargu hautetsientzako harrera-eskuliburua.
- ✓ Euskadiko udalen antolakuntza eta funtzionamendurako erregelamenduak.
- ✓ Udal-arduradunentzat prestakuntza-jarduerak eta jardunaldiak.
- ✓ Tokiko Gobernuen Batzorderako derrigorrezko txostenak egitea.
- ✓ [Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea](#) garatzeko memoria ekonomiko-finantzarioak, arauak eta bestelako txostenak.

EUDELek behar bezala eman beharko du argitara zein den diruz lagundutako jarduera eta zein diren dirulaguntzaren berri emateko eta hedakuntzarako egintzak.

### TOKI ERAKUNDEEI BURUZKO LEGEA ETA EUDEL

[Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen](#) arabera, EUDEL “udalen interesak babesteko eta sustatzeko ezarpen handiena duen elkarte da”. Udalei eta toki-erakundeei euskarri tekniko kualifikatua ematen die euren kabuz asumitu ezin dituzten erronkak garatzeko. Horrez gainera, elkarteak Euskadiko udal-politikaren kohesio-faktorea ere bada.

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### **EUSKO JAURLARITZAK 9 MILIOI EURO BAINO GEHIAGOREKIN BABESTEN DITU ARRANTZA SEKTOREAREN ETA SEKTORE AKUIKOLAREN BERRIKUNTZA, IRAUNKORTASUNA ETA EFIZIENTZIA**

- **Besteak beste, berrikuntzako eta giza kapitala sustatzeko eta berritzeko jardueretara eta biodibertsitatearen babeserako, osasun eta segurtasuneko eta efizientzia energetikorako erabiliko dira**
- **Laguntza horien onuradunak izan daitezke pertsona fisikoak zein juridikoak, ondasun komunitateak, arrantza erakunde profesionalak, arrantzaleen kofradiak, eta ekoizleen erakundeak**

2019an arrantza sektoreari eta sektore akuikolari emango zaizkion laguntzen deialdiaren oinarrian arautzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak emandako Agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak urriaren 15ean egindako Kontseilu bileran. Bederatzi milioi eurotik gora dira horretarako erabilgarri dagoen diru kopurua.

### **Laguntza lerroak**

**Agindu honen laguntza lerroak honetarako izango dira:**

- Berrikuntza
- Aholkularitza zerbitzuak
- Ikertzaileen eta arrantzaleen arteko elkarteak
- Giza kapitalaren sustapena, enpleguaren sorrera eta elkarriketa soziala
- Arrantzale gazteen hasierako laguntza
- Osasuna eta segurtasuna arrantza ontzien barruko edo ekipo indibidualetako inbertsioetan
- Arrantzak itsas ingurunean duen inpaktuaren murrizketa eta arrantza espezieen babesera egokitzea
- Itsasoko baliabide biologikoen kontserbazioari lotutako berrikuntza.
- Itsasoko biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratztea, eta konpentsazio erregimenak arrantza jarduera iraunkorren esparruan. Itsasoko hondakinen bilketa
- Itsasoko biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratztea, eta konpentsazio erregimenak arrantza jarduera iraunkorren esparruan.
- Efizientzia energetikoa eta klima aldaketa arintzea. Itsasontzien barruko inbertsioak, auditoriak eta azterketa energetikoak.

- Efizientzia energetikoa eta klima aldaketa arintzea. Motorrak ordeztea edo berritzea.
- Balio erantsia, produktuen kalitatea eta nahi ez diren harrapaketen erabilera.
- Portu txikiak, lehorreratze lekuak, lonjak eta ainguralekuak
- Ekoizpen eta merkaturatzeko planak eta neurriak
- Merkaturatze neurriak
- Akuikulturako berrikuntza
- Akuikulturako ekoizpenerako inbertsioak: ekoizpenaren dibertsifikazioa, zentroen hobekuntza eta modernizazioa, produktuen kalitatearen hobekuntza.
- Akuikulturako ekoizpenerako inbertsioak: baliabideen efizientzia, uraren erabilera eta produktu kimikoen erabileraren murrizketa, birzirkulazio sistemak
- Akuikulturako ekoizpenerako inbertsioak: efizientzia energetikoaren eta energia berriztagarriaren hazkundera
- Kudeaketa, ordezkapena eta aholkularitza zerbitzuak akuikulturako ustiategiarentzat.
- Giza kapitalaren eta sareko lanaren sustapena
- Akuikulturako ekoizpen guneen ahalmena handitzea
- Akuikultura iraunkorrean diharduten enpresa berrien sustapena.
- Animalien osasunerako eta ongizaterako neurriak

### **Onuradunak eta baldintzak**

Laguntza horien onuradunak izan daitezke pertsona fisikoak zein juridikoak, ondasun komunitateak, arrantza erakunde profesionalak, arrantzaleen kofradiak, eta ekoizleen erakundeak, beti ere administrazio egoitza edo egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan badute eta zerga betebeharrei eta gizarte segurantzarekikoei dagokienez egunean badaude.

Hauek izango dira onuradunen betekizun nagusiak: inbertsioak EAEko lurraldean egitea, eta gastuak eskaera unean hasita egotea eta inbertsioek ingurumenerako ondorio negatiborik ez izatea. Era berean, laguntza horien onuradun diren pertsona edo erakundeek agindu egingo dute laguntzak emandako helburu zehatzerako erabiliko dituztela eta inbertsioak gutxienez bost urtetan mantenduko dituztela.

## **Epeak**

Agindu honetan araututako laguntzak 2019an eskuratu ahal izateko eskabideak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da agindu hau indarrean sartzen den egunetik aurrera. Halere, agindua argitaratu aurretik aurkeztutako proiektuak epe barruan aurkeztuzat joko dira, baldin eta 2019ko ekitaldiaren barruan sartu badira.

Agindu honen bitartez iragarritako laguntzak Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren 2019ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude, eta Plana, halaber, Eusko Jaurlaritzaren web orrian dago argitaratuta ([www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)) eta <http://www.euskadi.eus/noticia/2019/plan-estrategico-de-subvenciones-del-departamento-de-desarrollo-economico-e-infraestructuras-para-2019> estekaren bitartez kontsultatu daiteke.

## Ogasun eta Ekonomia

### **EUSKO JAURLARITZAK KAIKUREN %7,3 BEREGANATZEKO BAIMENA EMAN DIO FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUARI**

Gobernu Kontseiluak, KAIKU CORPORACIÓN ALIMENTARIA, S.L.-ren %7,31a 6,6 milioi euroren truke eskuratzeko Finantzen Euskal Institutuari –FEI-IVF– eman beharreko baimena onetsi du gaur. Kaiku Corporación Alimentaria, S.L., helbide soziala Donostian duen eta esnekien eta nekazaritza-elikadura produktuen merkaturatzean, banaketan eta salmentan aritzen den Kaiku Taldearen sozietate matrizea da. Jatorria, 50eko hamarkadan lehenengo abeltzain kooperatiben (Beyena, Gurelesa eta Kaiku) eraketan bilatu behar dugu. 2018ko salmentak 393,3 M€-koak izan ziren, eta EBITDA 23,6 M€-koa izan zen.

Gaur egun, konpainiaren kapital soziala 82 M€-koa da, eta sozietateak duen partaidetza honela banatzen da:

- EMMI, AG %73,47
- KAIKU, SOC COOP %10,79
- LLETTERS, LLET NOSTRA, SCCL %0,20
- CAJA LABORAL POPULAR LK, SOC COOP CTO %8,23
- EKARPEN PRIVATE EQUITY SA %7,31

#### **Eusko Jaurlaritzaren partaidetza estrategia**

Ekarpenen aldi batean egon ondoren, Jaurlaritzaren iritziz korporazioak nekazaritza-elikadura sektorerazuzendutako industria politikarekiko interes estrategikoa du. Hori dela eta, Ekarpunen partaidetza bereganatuko du, hark euskal elikadura enpresako akziodunen taldetik irten eta gero.

FEI-IVFk Kaikun izango duen presentziak euskal enpresaren estrategia eta hemengo lehen sektorearekin duen konpromisoa indartuko ditu. Horrela, Kaikuren eta bere berrikuntzaren bitartez, bertako abeltzainek ekoiztutako esnearen bilketa bermatuko da (0 km produktuak).

Kompainiaren ezaugarriak kontuan izanda, partaidetza izaera gehigarritzartu ahal izango litzateke Finkatuz Funtzaren zorrora, hori era formalean eratu eta gero. Jakina denez, Finkatuzek 100 M€-ko hasierako inbertsioa aurreikusten du.





## Hezkuntza

### **26,5 MILIOI EURO HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA ESKAINTZEN DUTEN ESKOLA PRIBATUENTZAT**

- **Egun Euskadin hezkuntza maila hori eskaintzen duten 274 eskola pribatu daude, 13.000 haur ingururekin**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2019-2020 ikasturterako Haur Hezkuntzako lehen zikloa eskaintzen duten titularitate pribatuko haur-eskolentzat dirulaguntzak arautzen dituen Agindua.

Hezkuntza Sailak 26.595.744,68 euro bideratzen ditu diru-laguntza deialdi honetara, honako helburu hauekin: aipaturiko hezkuntza zentrok mantentzen laguntzea, zerbitzu horiek erabiltzen dituzten familien kuotak gutxitu eta bateratzea, eta zerotik hiru urtera arteko haurrentzako eskola horietan ematen diren hezkuntza eta zerbitzuaren kalitatea hobetzea. Era berean, egun dagoen eskaintza finkatzea eta, beharrezkoa izanez gero, handitzea ere bada dirulaguntza hauen xedea.

Eskola hauek, Haurreskolak Partzuergoko haur-eskolek eskaintzen duten zerbitzuaren osagarri dira, eta haiekin batera, euskal familiei familia bizitza eta lanbidea bateratzeko funtsezko hezkuntza-zerbitzua eskaintzen diete.

Egun, Haur Hezkuntzako lehen zikloa eskaintzen duten 274 zentro daude Euskadin, hezkuntza-maila hori eskaintzeko behar bezala baimenduta egonik, dirulaguntza hauen onuradun izan daitezkeenak. Joan den 2018-2019 ikasturtean, 13.253 haur daude eskola horietan matrikulaturik.

Dirulaguntza deialdi honetan eskaerak aurkezteko epea 15 egunekoa izango da, deialdia EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

## Hezkuntza

### OXFORDEKO UNIBERTSITATEKO ST ANTONY'S COLLEGEN IKERTZAILE BISITARI IZATEKO LAGUNTZAK

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaur onartu du 2019-2020 ikasturtean Oxford-eko Unibertsitateko St Antony's Collegen egonaldia egingo duten ikertzaile bisitariarentzat dirulaguntzak deitzen duen agindua.

Diru-laguntza hau, 50.284 euroko kopurua duena, 2007an Hezkuntza Sailak eta Oxford-eko Unibertsitateak Basque Visiting Fellow programa garatzeko sinaturiko lankidetzaren emaitza da.

Ikertzaile bisitariak ondorengo diziplina hauetan egin ahal izango du ikerketalana: Historia Modernoko Politika, Nazioarteko Harremanak, Ekonomia, Gizarte Zientziak, Antropologia eta Nazioarteko Zuzenbidea. Diru-laguntza eta egonaldia ikasturte oso baterako (hiru hiruhileko) izango da, izangaiek hiruhileko bat edo biko egonaldi partzialak aukeratu ahal izango dituzten arren.

Laguntza hau eskuratzeko interesa duten ikertzaileek, doktore graduaren jabe izan beharko dute, eta horrez gain, lana egin ahal izateko eta unibertsitate-komunitatean bizitzeko ingeles maila egokia izan beharko dute. Eskaera orriarekin batera, curriculum akademiko eta zientifikoa aurkeztu beharko dute, eta Oxford-eko Unibertsitateko St Antony's College-an garatu nahi duten ikerketa proiektua ere bai, ingelesez idatziak bata zein bestea.

#### **St. Antony's College**

Oxford-eko Unibertsitateko St Antony's College entzute handiko ikastetxea da Gizarte Zientzien arloan, diziplina arteko eskualde eta nazioarteko ikasketetan batez ere. Oxfordeko St Antony's College Ikasketa Europarren Institutuan euskal gaietan espezialista den ikertzaile bisitari bat egotea oso lagungarri izango da Euskal Herria gero eta ezagunagoa izan dadin.

Oxford-eko Unibertsitatean europar ikasketekin interesaturik diharduten ikertzaileentzako elkargune eta laborategi intelektuala da. Zentro horretako ikertzaile edo *Fellow* deritzenez gain, badira Europako sei herrialdetako ikertzaile bisitariak ere. Horietako bat da *Basque Visiting Fellow*. Gainera, zentro honek nazioarteko zenbait proiektutan ere hartzen du parte, eta mintegi nahiz lan saioak ere antolatzen ditu, jorratzen dituen diziplinetako hainbat akademiko entzutetsu gonbidatuz.

## Hezkuntza

### 2019ko EUSKADI IKERKETA SARIAREN DEIALDIA

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2019ko Euskadi Ikerketa Saria deitzen duen Agindua onartu du, jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz. 2019an, Gizarte Zientzien eta Humanitateen modalitatean deitzen da saria.

Euskadi Ikerketa Sariak jarduera zientifikoa sustatzea du helburu nagusi, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko ikertzaileek eta talde kualifikatuek egiten dituzten ahaleginak sustatzea eta bultzatzea ere, betiere horien lanak oso eragin positiboa badu Euskadirako.

Euskadi Ikerketa Sarirako hautagai izan daitezke doktore tituluaren jabe diren ikertzaileak. Horrez gain, hautagaiak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko ikerketa zentroyen batean aritu edo bertara atxikia izan beharko du, eta bere ibilbide zientifikoa Euskadin garatua izan, gutxienik 12 urtez, doktoregoa eskuratu ondoren. Era berean, Ikerbasque Fundazioak kontrataturiko irakasleen hautagaitzak ere onartuko dira, arestian aipaturiko sareko ikerketa zentroyen batera atxikita badihardute.

Hautagaitzak proposatu ditzakete bai erakunde zientifikoek, bai beste ikertzaile batzuek, eta baita hautagaiak berak ere. Hautagaitzak aurkezteko epea deialdia EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunean irekiko da, eta hilabeteko epez egongo da zabalik.

Euskadi Ikerketa Saria bi urtean behingo errotazioz deitzen da, jarraian azaltzen den eran: urte bikoitietan gaiak Zientzia eta Teknologiar buruzkoak izaten dira, eta urte bakoitietan berriz, oraingo kasu honetan bezala, Gizarte Zientziei eta Humanitateei buruzkoak.

Gizarte Zientzien eta Humanitateen modalitateak arlo hauek hartzen ditu: Gizarte eta Ekonomia Zientziak, Zientzia Juridikoak eta Humanitateak. Zientzia eta Teknologiaren modalitateak, berriz, Oinarrizko Zientziak, Bizitza eta Osasun Zientziak, Teknologia eta Arkitektura.

## Osasuna

### **STOP FUGA DE CEREBROS” DOKTOREGO ONDOKO LAGUNTZA, EUSKADIN OSASUN IKERKETARAKO**

Nekane Murga Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak, gaur, Gobernu Kontseiluari, BIOEF Berrikuntza+Ikerketa+Osasuna Euskal Fundazioaren Roche "Stop fuga de cerebros" ikerketarako doktorego ondoko laguntza arautzeko eta deitzeko Aginduaren berri eman dio.

Laguntza Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen agente bati dagokion ikerketa-talde batean sartuko den doktorego ondoko ikertzaile bat kontratatuzera bideratuko da, Euskadin dagoen osasun ikerketako institutuaren edo osasun-arloko I+G jardueren erakundeen kategorian.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### EUSKO JAURLARITZAK HITZARMEN BAT SINATU DU DONOSTIA 2016 FUNDAZIOAREKIN, KULTUR HIRIBURUTZARI LOTUTAKO HIRU PROIEKTURI JARRAIPENA EMATEKO

- **Kultura eta Hizkuntza Politika Saila arduratuko da 'Tosta' eta 'Hizkuntz Aniztasunaren Europako Foroa' proiektuen zabalkundeari jarraipena emateaz, eta 'Hitzargiak' ekimena garatuko du**

Eusko Jaurlaritzak lankidetzeta-hitzarmen bat onartu du Donostia 2016 Fundazioarekin, Donostia 2016 Kultur Hiriburutzari lotutako *Tosta*, *Hizkuntza Aniztasunaren Europako Foroa* eta *Hitzargiak* proiektuak bultzatzeko. Helburua da Fundazioa erabat desagertzean Kultura eta Hizkuntza Politika Saila izatea proiektu horiei jarraipena emateaz arduratuko dena.

Zehazki, hitzarmenak *Tosta* eta *Hizkuntza Aniztasunaren Europako Foroa* proiektuen hedapenari jarraipena emateko beharra ezartzen du, baita *Hitzargiak* proiektua garatu eta gauzatzeko beharra ere. Akordioaren arabera, jarraipen-batzorde bat sortuko da, hitzarmena betetzen dela bermatzeko.

Hizkuntza gutxiak dituzten herrialde eta kulturetatik etorritako artistak biltzen dituen ekimena da *Tosta* egitasmoa. Irlanda, Eskozia, Gales, Cornualles, Frisia, Galizia eta Euskaditik etorritako musikari eta artistek hartzen dute parte proiektuan. Igor Otxoak zuzentzen duen eta Mixel Ducau buru musikala duen proiektuak Oreka TX txalapartariak hartzen ditu euskal ordezkari gisa.

*Hizkuntza Aniztasunaren Europako Foroak*, bestalde, Europa osoko aditu akademikoak biltzen ditu, hizkuntza-aniztasunaren sustapenean lan egiten duten eragile sozial eta instituzional nagusiekin esperientziak eta ikuspegiak partekatzeko. Foro hau UNESCO Etxea- Euskadik eta Donostia 2016k antolatzen dute.

Azkenik, Soziolinguistika Klusterrak eta Donostia 2016 Kulturaren Europako Hiriburuak abian jarritako ekimena da *Hitzargiak*, eta Europan hizkuntzak biziberritzeko ekimen arrakastatsuak identifikatzea du helburu, bai eta hizkuntza-komunitateei elkar elikatzeko aukera ematea ere.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 320.000 EUROKO PARTIDA ONARTU DU, KULTURAREN ARLOAN PUBLIKOAK SORTU, FIDELIZATU ETA AREAGOTZEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA EGITEKO**

- **Laguntza-lerro hau bi urtekoa izango da lehen aldiz, eta kultura kontsumoa publiko berrietara hurbiltzeko ekimenak babestuko ditu**

Eusko Jaurlaritzak 320.000 euroko partida onartu du bere gaurko bileran, kultur publiko berriak sortzeko deialdia abian jartzeko. Laguntza-lerro honen helburua da publiko kulturala sortu, fidelizatu eta areagotzeko ekimenak bultzatzea. Deialdia, lehen aldiz, bi urtekoa izango da.

Laguntza-lerro honek kultur politikak urrats bat harago eraman nahi ditu, kultur kontsumoaren esparruan ere arreta jarriz eta publikoak sortzea, fidelizatzea eta areagotzea bultzatuz. Helburua kultur sorkuntzaren eta publikoaren artean dauden oztopoak gainditzeko lan egitea da.

Helburu hori lortzeko, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak kultur publikoak sortu, fidelizatu eta zabaltzeko orduan bide eraginkor berriak proposatzen dituzten eragileen ekimenak babestuko ditu. Aurtengo deialdia bi urtekoa izatea da helburua, publiko berrien sorrera bultzatzeko aurkeztu diren proiektuak sendagoak izan daitezen eta denboran jarraipena izan dezaten.

Joan den uztailan Gobernu Kontseiluan aurkeztu zen 19/22 Kultura Planak euskal kulturaren ikusgarritasuna handitzeko beharra adierazten du, eta publiko berrien sorreran arreta finkatzeko beharra azpimarratzen du. Hala, planak adierazten du Euskadin sortutako kulturarekiko interesa, ezagutza eta aitortza areagotzea Eusko Jaurlaritzaren kultur politiken gakoetako bat dela –are gehiago euskaraz sortutakoaren kasuan–. Hala, azpimarratzen du beharrezkoa dela publiko berriak erakartzeko eta fidelizatzeko estrategiak sartzeko sektoreko elkarte profesional guztien jardueretan.

Halaber, legegintzaldi honetarako Gobernu Programak, bere ekimenen artean, audientzien fidelizazioa eta publiko berrien sorrera bultzatzeko beharra aipatzen du.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 210.000 EURO BIDERATU DITU KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK BULTZATZEKO, HIRU DIRU-LAGUNTZA IZENDUNEN BIDEZ**

- **Laguntzak Innobasque Fundazioari, Fair Saturday Fundazioari eta Karraskan kolektiboari zuzenduta daude**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak hiru diru-laguntza izendun onartu ditu, bere gaurko bileran, Kultura eta Sormen Industriei lotutako proiektuak sustatzeko. Diru-laguntzak 210.000 eurokoak dira, guztira, eta Innobasque Fundazioari, Fair Saturday Fundazioari eta Karraskan kolektiboari zuzenduta daude, kulturaren eta sormenaren eremuko zenbait ekimen sustatzeko.

Innobasque Fundazioari ematen zaion laguntzaren kasuan, helburua da Basque District of Culture and Creativity izeneko tresna estrategikoa sortzea eta jarduera-ildoak zehaztea. Proiektu horrek Kultura eta Sormen Industriak garatzeko politika publikoak bultzatzeadu helburu, laguntza kualifikatua eskainiz kulturarekin (ikus-entzunezkoak, musika, arte eszenikoak ...) eta sormenarekin (diseinua, moda, gastronomia ...) lotutako industriak bultzatzeko.

Era berean, bigarren laguntza, 60.000 eurokoa, Fair Saturday Fundazioari zuzenduta dago, Fair Saturday ekimena egiten laguntzeko. Azaroko azken larunbatean egiten den "eragin soziala duen mobilizazio kulturala" da, "kontsumismoaren adierazle nagusia den Black Friday egunaren biharamunean". Horrela, mundu osoko artista eta erakunde kulturelek bat egiten dute jaialdi global horrekin, beren hautazko proiektu sozial bat beren ekitaldiaren bidez babesteko betekizunarekin. Eusko Jaurlaritzak, gaur onartutako diru-laguntzaren bidez, Euskadin sortutako ekimen hau babesten du, kulturaren eta gizarte-enpatiaren arloko jardunbide egokien eredia dela uste baitu.

Azkenik, hirugarren laguntza, 50.000 eurokoa, Karraskan kolektiboari zuzenduta dago. Elkarte profesional hori Euskadin berrikuntza sustatu nahi du kulturaren arloan. Kasu honetan, Karraskanek laguntza honi esker 'Zainketa aringarrietan barne bitartekaritza bide berriak' programa bultzatuko du, sormena eta osasun arloa uztartuko duen ekimena. Karraskan 2012ko urtarrilean sortu zen, eta kulturarekin, sorkuntza garaikidearekin edota sormen aplikatuarekin zerikusia duten eragile profesional independenteek osatzen dute. Eragile horien jarduera-eremua honako hauek dira: asmatzea, ekoizpen txiki edo handiak praktikan gauzatzea, bitartekaritza, aholkularitza, kudeaketa edo bestelako zerbitzu aurreratutak.



## Presidencia

### **EL GOBIERNO VASCO COLABORA CON LA COMISIÓN DE LA VERDAD DE COLOMBIA PARA LA RECOGIDA DE TESTIMONIOS DE LAS VÍCTIMAS COLOMBIANAS EN EL EXILIO**

- **La colaboración se realizará a través del Instituto HEGOA y permitirá a la Comisión para el Esclarecimiento de la Verdad, la Convivencia y la No Repetición en Colombia cumplir su mandato en relación a las víctimas que se vieron obligadas a exiliarse a causa del conflicto**

El Gobierno Vasco colaborará con la Comisión para el Esclarecimiento de la Verdad, la Convivencia y la No Repetición en Colombia, para que esta pueda cumplir su mandato en relación con las víctimas del conflicto que se vieron obligadas a exiliarse y que se encuentran en el País Vasco, resto del estado español y en otros países de Europa, (Francia y Bélgica principalmente). La colaboración se realizará a través de HEGOA-Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional de la UPV/EHU, para lo que el Consejo de Gobierno ha aprobado hoy una ayuda de 152.000 euros, que será gestionada por la Secretaría de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación (Dirección de Víctimas y Derechos Humanos).

En la actualidad HEGOA contribuye con la Comisión colombiana en la atención a las víctimas exiliadas, garantizando de esta forma la protección a todas las personas que, en el contexto de conflicto en Colombia, cruzaron las fronteras nacionales, viendo su vida, su seguridad o libertad amenazadas por la violencia generalizada, los conflictos internos y la violación masiva de los derechos humanos. En concreto, el trabajo que se va desarrollar en el marco de esta colaboración se centra en recopilar información sobre las violaciones a los derechos humanos que provocaron el exilio de estas personas y sus consecuencias.

Así, la ayuda hoy concedida servirá para poner en marcha talleres de formación dirigidos a las personas encargadas de tomar testimonios a las víctimas, así como a las que se ocupan de su acompañamiento y atención psicosocial; además de la propia toma y sistematización de 500 testimonios de víctimas europeas.

La Comisión para el Esclarecimiento de la Verdad, la Convivencia y la No Repetición en Colombia, se creó en el marco del Acuerdo Final para la terminación del conflicto y la construcción de una paz estable y duradera, suscrito en 2017 entre el Gobierno de Colombia y las Fuerzas Armadas Revolucionarias de Colombia. Se constituyó como un mecanismo de carácter temporal y extrajudicial para conocer la verdad de lo ocurrido en el marco del conflicto armado, contribuir al esclarecimiento de las violaciones e infracciones cometidas durante el mismo, y ofrecer una explicación amplia de su complejidad a toda la sociedad. Ello implica, también, dar cuenta del impacto del conflicto en las víctimas que se encuentran en situación de refugio y/o exilio, de la

vulneración de sus derechos, y de cómo el conflicto armado cruzó las fronteras junto con las personas

## Presidencia

### CONVOCADA LA EDICIÓN DE ESTE AÑO DEL PREMIO *IGNACIO ELLACURÍA* DE COOPERACIÓN

